

TELP tailerra. EGITARAUA

EKAINAK 11

1. EGUNA	1. Atala	<p>OINARRI TEORIKOAK</p> <p>SARRERA: Nori zuzendua dagoen argitu, helburuak ezagutzera eman, funtzionamendua azaldu (atsedenaldiak, parte-hartzea, egingo dugunaren berri eman...), lanerako premisak jarri (terminologia, kasu zehatzen gaineko lanketa...), norberaren hizkuntza portaeraren azterketa, norberarentzako gida izango den galdetegi baten bidez.</p> <p>OINARRI TEORIKOA: Atal honetan hiru helburu hauek landuko dira: Hizkuntza jokaeraren gaineko gogoeta eginarazi, nola ikasi dugun eta zein mekanismok iraunarazten duen erakutsi eta intsumisioa jokaera asertibo gisa aurkeztu.</p> <p>ARIKETAREN AZALPENA: Aste guztian zehar egin beharko duten ariketa zein izango den azalduko zaie.</p>
	2. Atala	<p>IKUSPEGI ESTRATEGIKOA</p> <p>INTERAKZIO PERTSONALEN IKUSPEGI ESTRATEGIKOA. Gatazka prozesuen ikuspegi sistemiko bat erakutsi, pertsonen arteko interakzioan ikuspegi estrategiko bat erakutsi, pasadizo eta gertaeren azalpena modelatu, intereseko egoerak identifikatu eta parte-hartzea sustatu. Ohiturak aldatzea zaila dela jakin arren, alda daitezkeela jabetzeko balio du saio honek, besteak beste.</p>
	3. Atala	<p>BALIABIDEAK</p> <p>BALIABIDEAK (I). "Baliabide" esatean zer ulertzen dugun azaldu, jokaera aztertzeko hiru mailak erakutsi, baliabideak eskura jarri, norberaren aurreiritziak identifikatu eta desmuntatzen erakutsi, erregistroen baliagarritasuna erakutsi, arrakastazko egoerei arreta berezia jarri.</p>
	4. Atala	<p>ANIZTASUNA</p> <p>ANIZTASUNA, ZAILTASUNA eta PROGRESIBITATEA. Hizkuntza aldaketa emateko helburuak finkatu nahi dira, egoera errazak eta zailtasuna ertaineko egoerak identifikatuz. Egoera guztiak ez dira berdinak eta beraz, irtenbiderako estrategia desberdinak baliagarri izan daitezkeela erakutsiko da.</p>

EKAINAK 18

2. EGUNA	5. Atala	<p>KONBERGENTZIA GERUZAK</p> <p>KONBERGENTZIA MAILAK: Komunikazio egoeren ikuspegi sistemiko bat erakutsi, norberak euskaraz egiten duen erabilera pixkanaka-pixkanaka hazi daitezkeela erakutsi, norbere buruarentzat bezala besteentzat ere aldaketarako helburu zehatzak jarritz.</p>
	6. Atala	<p>ASERTIBITATEA</p> <p>KOMUNIKAZIO ASERTIBOA. Portaera aldaketak nola eskatu erakutsi, eztabaidatu gabe eta hika-mikan erori gabe kritika eta erasoei aurre egiten ikasi eta egoera guztiak berdinak ez direla eta beraz, irtenbiderako estrategia desberdinak baliagarri izan daitezkeela erakutsi.</p>
	7. Atala	<p>ASERTIBITATEA</p> <p>KOMUNIKAZIO ASERTIBOA. Portaera aldaketak nola eskatu erakutsi, eztabaidatu gabe eta hika-mikan erori gabe kritika eta erasoei aurre egiten ikasi eta egoera guztiak berdinak ez direla eta beraz, irtenbiderako estrategia desberdinak baliagarri izan daitezkeela erakutsi.</p> <p>NORBERAREN HELBURUAK ZEHATZTEA</p> <p>GALDETEGIA: Hasieran betetako galdetegia erabiliz, norberaren espazio linguistikoa handitzeko helburuak zehaztuko ditugu.</p>
	8. Atala	<p>IDEIA NAGUSIAK ETA ONDORIOAK</p> <p>ONDORIOAK: Oinarrizko ideiak errepasatu eta hedapen efektua azpimarratu.</p> <p>Amaiera emateko tailerra bera ebaluatuko da, hiru egunetako jarduera nolakoa izan den jakiteko.</p>